

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERABEITIKO UDALA

Arasur-Ribabellosan (Araba) pneumatikoak hartzeko, biltegitratzeko eta bidaltzeko zentro logistikoa jartzeko jarduera proiektua

XPO Supply Chain SL enpresak udal jarduera baimena eskatu du pneumatikoak hartu, biltegitratu eta bidaltzeko zentro logistikoa jartzeko (kokalekuaren katastro erreferentzia: 1 poligonoko 2381 lurzatiko H azpilurzatia).

Eta otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babestekoak, bere 58.1 artikulua betez, jendaurrean jartzen da hamabost egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, jarduera horrek nola edo hala kalte egiten diela uste dutenek aukera izan dezaten egoki jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Espedientea udaletxeko bulegoetan dago gordeta, eta bulego orduetan dago aztergai.

Ribabellosa, 2019ko uztailaren 3a

Alkatea

MIREN SANTAMARÍA MARTINEZ